



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKAK

1. Inmigratio-teknikariak kontratatzeko jarraitzeko (TEC lerroa) eta inmigratioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak (LOC lerroa) 2
2. Pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak 4
3. Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat 6
4. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa 7
5. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa 10
6. Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak 13
7. Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak 14
8. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzako proiektuak garatzeko diru-laguntza..... 15
9. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak..... 16
10. Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak 17



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Immigrazio-teknikariak kontratatzekeo jarraitzekeo (TEC lerroa) eta immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak egitekeo laguntzak (LOC lerroa)

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 30koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen dira erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzekeo eta jarduerak garatzekeo diru-laguntzak ematekeo oinarriak, eta laguntza horietarako deialdia egiten da 2018. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

- <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/08/1804387a.pdf>
- <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901324a.shtml>
- <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901325a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen xedea da toki-erakundeek beren ekimenez egindako esku-hartze soziala sustatzea, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean horrelako toki erakundeak laguntzekeo.

Programak bi diru-laguntza lerro ditu, ondorengo helburu desberdinekin:

- TEC lerroaren bidez immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren mantentzea finantzatu da, 2017an indarrean zeuden kontratazioen kasuan, eta kontratazio horiek Enplegu eta Gizarte Politiketako diru-laguntzak jaso badituzte, gai horretan giza-baliabide espezializatuak edukitzekeo xedez. Lerro horretara bideratutako partida 381.920 eurokoa da.
- LOC lerroaren bidez immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorrekeo jarduerak egitekeo, gauzatekeo eta ebaluatzekeo lanak ere finantzatu da. Lerro horretara bideratutako partida 498.080 eurokoa da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Harrera eta integrazioaren aldekeo lanerako Jaurlaritzaren eta udalen artekeo koordinazio tresna sendotzea (TEC lerroa): 2018an, 16 immigrazio teknikarien kontratazioa finantzatu da 12 erakunde publikoetan, 373.040,39 eurokeo zenbatekeoaren bidez.
- Kultura-artekotasunaren esparruan udalen lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa ematekeo bitartekoak ezartzea (LOC lerroa): 2018an, jasotako 36 eskarietatik, 34ri eman zaie diru-laguntza. 504.555,44 eurokeo zenbatekeoaren bidez.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|-----------------------------|----------------------|----------------|
| Erakunde-kopurua (TEC 2018) | 12 | 12 |
| Erakunde-kopurua (LOC 2018) | 30 | 34 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

271/2012 DEKRETUA, abenduaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

- 271/2012 Dekretua <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/12/1205640e.pdf>
- Deialdiaren agindua <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/02/1801058e.pdf>
- Esleipenaren ebazpena <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900575e.pdf>
- Esleipenaren ebazpena <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900576e.pdf>
- Esleipenaren ebazpena <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900577e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

271/2012 Dekretuak helburu nagusi bat du: Eusko Jaurlaritzak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei emango dizkien laguntzen esparru orokorra arautzea, gizarte-zerbitzuetako eta, oro har, esku-hartze sozialeko jarduerak finantzatzeko. Jende guztiaren autonomia pertsonalaren sustapen eta babesera eta integrazio komunitariora bideratutako jarduerak, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo horiei buruzkoak badira: gizarte-zerbitzuak, gizareratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta babestea eta, oro har, desgaitasun-egoeran daudenak; eta askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- GIZ deialdiari dagokionez (gizarte-arloan esku hartzeko jarduerak, pertsona, familia, talde eta komunitateei zuzenduak), 261 erakundek 308 proiektu aurkeztu zituzten. Guztira, 146 erakunderen 211 proiektu finantzatu ziren, eta, orotara, 3.743.478,00 € eman ziren.
- ELK delakoan, hots, gizarte esku-hartzean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzea, 126 proiektu aurkeztu zituzten 105 erakundek. Guztira, 75 erakunderen 87 proiektu finantzatu ziren eta, orotara, 598.995,00 € eman ziren.
- JAK ildoari dagokionez, gizarte esku-hartzerako jakintzaren kudeaketa-jarduerak, 67 erakundek 105 proiektu aurkeztu zituzten. Guztira, 67 erakunderen 71 proiektu finantzatu ziren eta, orotara, 449.991,00 € eman ziren.



Erabilgarritasunari eta gizarte-eraginari dagokienez, hau azpimarratu behar da: jarduera hauen bidez indartu egiten da gizarte-zerbitzuen sistema publikoa garatzen duten eragile instituzional eta sozial guztiekiko sare-lana, eta batik bat pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|-----------------------------|----------------------|----------------|
| Erakunde kopurua (GIZ 2018) | 261 | 308 |
| Erakunde kopurua (ELK 2018) | 105 | 126 |
| Erakunde kopurua (JAK 2018) | 58 | 67 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat

2.- Araua

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa.
- Agindua, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena —1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa—.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

1/2004 Lege Organikoa (2004ko abenduaren 29ko BOE, 313. zk.):

<https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>

AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa (2014ko azaroaren 19ko EHAA, 221. zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/11/1404962e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatu dirulaguntza-programak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dirulaguntzak ezarriz, beren burua aurrera ateratzeko baliabide minimo batzuk eman nahi zaizkie, erasotzailearengandik independizatu ahal izateko enplegu bat lortu arte, hartarako zailtasunak izango dituztela uste denean, beren inguruabarrengatik (adina, prestakuntza orokorrik eta espezializaturik eza, eta bestelako inguruabar sozialak). Baliabide ekonomikoak ziurtatu nahi zaizkie emakume biktimei, errazago gizarteratu daitezen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

295 laguntza-eskabide jaso dira 2018an: 2018an 272, gehi konpondu gabe geratutako iazko 23.

295 eskabide horietatik 275 ebatzi dira (170 onartu eta 105 baztertu), eta 20 geratu dira 2019an ebazteko.

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako dirulaguntzaren aurrekontua 1.100.000 € izan da 2018an. Ia dena gastatu da, %91,78, hain zuzen ere 1.009.620 €.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|--------------------------------|----------------------|----------------|
| Zenbat dirulaguntza eman diren | 143 | 170 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa

2.- Araua

- 176/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen (2002ko abuztuaren 7ko EHAA, 148. zk.).
- 109/2006 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jaio edo adoptatzeagatiko dirulaguntza arautzen duena (2006ko ekainaren 7ko EHAA, 107. zk.).
- 255/2006 DEKRETUA, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen (2006ko abenduaren 27ko EHAA, 245. zk.).
- 30/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 121/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena (2018ko abuztuaren 6ko EHAA, 150. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Programaren arauak:

- 176/2002 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2002/08/0204401a.pdf>
- 109/2006 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2006/06/0602936a.pdf>
- 255/2006 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2006/12/0606443a.pdf>
- 30/2015 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501448e.pdf>
- 121/2018 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804066e.pdf>

Deialdia: ez da egiten.

Emate-erabakia: laguntzen esleipena edo ukapena ebazpen zehatzaren eta bereiziaren bidez egiten da.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea familientzako dirulaguntzak arautzea da, jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko seme-alaba kopurua handitzeak dakartzan zailtasunei erantzuten laguntzeko, eta horrela lagunduko da familiek nahi dituzten adina seme-alaba edukitzen.

Programan honako jardun-ildo hauek azaltzen dira:

- Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko dirulaguntzak.
- Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko dirulaguntzak.
- Nazioarteko adopzioagatiko dirulaguntzak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko urtean, programari 34.522.050,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 24.242.200,00 eurokoa izan zen, eta horrek esan nahi du %70,22 gauzatu zela.

Gastua honela banatu zen:

- 24.209.000,00 euro 30/2015 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira; laguntzetatik 30.825, ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak izan ziren; 285, erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntzak; eta 10, nazioarteko adopzio sinpleagatiko laguntzak. 360 kasutan onartu zen %33ko edo goragoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortzearen ondoriozko dirulaguntzak bikoiztea. Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez, 6.822 laguntza lehen semeagatik edo alabagatik eman ziren; 14.643 laguntza, bigarren semeagatik edo alabagatik; eta 9.360, hirugarren edo ondorengo semeagatik edo alabagatik. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren %21,31 (5.159.200,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, %31,12 (7.532.500,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta %47,57 (11.517.300,00 euro) Bizkaiko espedienteek.
- 32.300,00 euro 255/2006 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira. Zehazki, 35 espedientetan onartu zen %33ko edo goragoko desgaitasunengatiko laguntzak bikoiztea. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren %10,22 (3.300,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, %26,62 (8.600,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta %63,16 (20.400,00 euro) Bizkaiko espedienteek.
- 900,00 euro 176/2002 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira. Zehazki, Gipuzkoako espediente batean onartu zen %33ko edo goragoko desgaitasunarengatiko laguntza bikoiztea.

Seme-alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik eta mantenuagatik ematen diren laguntzen programak eragin handia eduki du gizartean abian jarri zenetik; horren adierazgarria da aldi jakin batean EAEn izandako jaiotzen eta aurkeztutako hasierako eskaeren arteko diferentzia, hau da, programaren estaldura-tasa. Fitxa hau egin denean ez dugu eduki 2018an izandako jaiotzei buruzko informazio guztia; beraz, 2017ko datuak erabili ditugu. EUSTATEk emandako informazioaren arabera, 2017an 17.076 jaiotza izan ziren, eta 15.832 hasierako eskaera aurkeztu ziren. Horietan, 16.195 haurrentzako dirulaguntza eskatzen zen. Horrek esan nahi du estaldura tasa %94,84 izan zela.

Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, adierazi behar dugu seme-alabak dituzten familien onurarako dirulaguntzen aurrekontu-zuzkidurak jakinarazten dituen 2018ko martxoaren 9ko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren Agindua aldatzen duen Aginduaren izapidetzea dela eta egindako memorian dirulaguntza horietarako aurrekontu-memorian bildu ziren magnitudeak eguneratu zirela, hain zuzen ere onuradunei zegozkien magnitudeak.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|---|----------------------|---------------|
| • Lehen seme-alabarengatiko laguntzak: | 9.772 | 6.822 |
| • Bigarren seme-alabarengatiko laguntzak: | 21.138 | 14.643 |
| • Hirugarren seme-alabarengatiko edo hurrengoengatiko laguntzak: | 11.342 | 9.360 |
| • Erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazio anitz eta nazioarteko adopzioengatiko laguntzak: | 587 | 295 |
| • %33 edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa: | 772 | 396 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa

2.- Araua

- 177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (ekainaren 7ko EHAA, 129. zk.).
- 2010eko ekainaren 30ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituena.
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).
- 31/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa (martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.
- 5/2017 legea, apirilaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018, urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituena (EHAA zbia,22, apirilaren 22),zeinaren seigarren xedapen gehigarriaren arabera onartzen den zenbatekoaren % 5eko murrizketa, 177/2010 Dekretuan oinarrituta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

- 177/2010 Dekretua <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003308a.pdf>
- 2010/06/30ko Agindua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003341a.pdf>
- 154/2012 Dekretua <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902174e.pdf>
- 31/2015 Dekretua <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501449e.pdf>
- 32/15 Dekretua <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501450e.pdf>
- 2015/04/01eko Agindua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/04/1501673e.pdf>
- 5/2017 Legea <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706289e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programako diru-laguntzek helburu hauetako bat dute: seme edo alaba adingabeak edo mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeagatik hartutako lan-eszedentziek edo lanaldi-murrizketek eragindako diru-sarreraren galera konpentsatzea, zati bat behintzat; edo, bestela, hiru urtetik beherako semea edo alaba etxean zaintzeko pertsona bat kontratatzeak eragiten dituen gastuak



ordaintzen laguntzea.

Helburu honen arabera, 177/2010 Dekretuan langileentzako hiru laguntza-linea hartzen dira kontuan familia eta lana bateragarri egiteko:

- Seme-alabak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak
- Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak.
- Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak.

31/2015 Dekretuak sartu duen berrikuntza nagusia da errenta estandarizatuaren irizpidea aplikatzea programaren bidez emango diren laguntza guztien zenbatekoa zehazteko. 177/2010 Dekretuaren lehen testuan irizpide hau seme edo alaba adingabea zaintzeko langilea kontratatzeko laguntzei baino ez zitzaien aplikatzen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko aurrekontuan, programari 34.985.774,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 24.185.983,13 eurokoa izan zen, eta horrek esan nahi du %69,13 gauzatu zela.

Gastua honela banatu zen:

- 23.265.075,40 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen N linean, 14.331 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artetik %9,43 gizonak ziren, eta %90,57 emakumeak.

Guztiko gastuaren %25,42 (5.914.510,19 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta %74,58 (17.350.565,21 euro) murrizketak diruz laguntzera.

Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, guztizko zenbatekoaren

- %24,49 (5.698.742,74 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen.
- %32,18 (7.484.523,58 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko.
- %43,33% (10.081.809,08 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.

- 658.653,06 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen D linean, 406 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artetik %18,27 gizonak ziren, eta %81,73 emakumeak.

Guztiko gastuaren %15,32% (100.908,00 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta %84,68 (557.745,06 euro) murrizketak diruz laguntzera. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera:

- %25,85 (170.284,05 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen.



- %28,67 (188.861,07 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko.

- %45,48 (299.507,94 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.

- 262.254,67 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko Z linean; 428 pertsona izan ziren linea horren onuradunak, pertsona horien artetik %26,64 gizonak ziren, eta % 76,36 emakumeak.

Guztizko gastua honela banatu zen lurraldearen arabera:

- %16,25 (42.610,60 euro) Arabako espedienteetarako.

- %24,33 (63.814,35 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.

- %59,50 (136.328,90 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

2018. urtean, aurreko urteetan bezala, murrizketagatiko laguntzak mantendu dira, bai N lerroan bai D lerroan. Hala ere, aurreko ekitaldiko eszedentzia eskaera % 2,71 igoera izan du N lerroan eta %1,65 D lerroan. Gehienbat emakumeek eskatzen dituzte lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak. Halaber, D lerroak eskaera kopuruan goranzko joera mantentzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|-------------------|----------------------|---------------|
| Lerroa N Onuradun | 18.150 | 14.331 |
| Lerroa D Onuradun | 400 | 406 |
| Lerroa Z Onuradun | 400 | 428 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abenduaren 20koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2018. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/12/1706302e.pdf>

Emate-erabakia: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/10/1804868e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea xede duten erakundeek sustatutako lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak egikaritzen laguntzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalentzako ikastaroak egitea, eta euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018. urtean 74 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 56k lortu dute diru-laguntza, 2k uko egin diote eskaerei eta beste 16ri hainbat arrazoiengatik ukatu zaie.

Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 535.685 eurokoa izan da guztira (bideratutako zuzkidura ekonomikoaren -536.000 €- %99,94), horrela banatuta:

- Lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak: 333.772 euro.
- Dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak: 13.440 euro.
- Urteroko programan jaso gabeko jarduera zehatzak, euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea helburu dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak: 188.473 euro.

Eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|-------------------------|----------------------|----------------|
| Emandako diru-laguntzak | 60 | 56 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abenduaren 20koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2018. urtean gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706301e.pdf>

Emate-erabakia: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/10/1804868e.pdf>

Emate erabakia (hutsen zuzenketa): <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/10/1805049e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jarduerak gauzatzen laguntzea, Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko, bai eta gazteen arteko mugikortasunarekin edo elkartrukearekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen, hedapen edo prestakuntza jarduerak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

25 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 18k diru-laguntza lortu dute, 2k ezetz esan diote emandako diru-laguntzari eta 3ri ukatu egin zaie diru-laguntza jarduerak deialdian ezarritako betekizunekin bat ez datozelako, 1 beste diru-laguntza deialdi batera bideratu da eta 1 epez kanpo aurkeztu da.

Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 144.232 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (145.000 €) %97,47, alegia.

Diruz lagundutako jarduerak erabilgarri eta beharrezkotzat joko dira gazteriarentzat, oro har, diren programa eta zerbitzuak eta, bereziki, gazteen arteko mugikortasuna, lehen deskribatutakoa, garatzeko. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|-------------------------|----------------------|----------------|
| Emandako diru-laguntzak | 20 | 18 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzako proiektuak garatzeko dirulaguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abenduaren 13koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinek garapen-lankidetzarako entitateei dei egiten baitie Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2018ko «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkez ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/12/1706091e.pdf>

Emate-erabakia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1805100e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko GGKEentzako dirulaguntza da, hiru hiletan Euskadiko 100 gazte gehienek hartuko dituzten lankidetzako proiektuak aurkez ditzaten. Programaren helburua da Euskadiko gazteak elkartasun eta parte-hartze balioetan sentsibilizatzea. GGKEek 700 euro jasotzen dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen kooperante bakoitzagatik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

49 lankidetzako proiektu aurkeztu ziren, eta 717 gaztekin egin zuten eskaera, eta ondoren, horietatik 99k hartu zuten parte. Gazte horiek lankidetzako proiektuetan hartu dute parte udako hiru hilabeteetan, Amerikako, Afrikako eta Asiako hainbat herrialdetan.

69.300 euroko dirulaguntzak eman dira guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren %99, alegia (70.000 €).

1993. urtean sortu zen programa eta, ordutik hona 2.200 gaztekin hartu dute parte, gutxi gorabehera, eta oso balorazio positiboa izan du beti, arrakasta handia du gazteen artean. Euskadiko gazteei Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzako programetan parte hartzeko aukera eman nahi diegu, euren esperientziak gure gizartean elkartasun kultura sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko balio izan dezan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|-------------------|----------------------|----------------|
| Parte-hartzaileak | 100 | 99 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko abenduaren 20koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako 2018ko deialdia egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706145e.pdf>

Emate-erabakia: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/10/1805079e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2018ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako proiektuak aurkezteko garapen-lankidetzarako erakundeei dei egiten dien Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2017ko abenduaren 13ko Aginduan xedatutakoari jarraiki, hautatutako herrialde eta lankidetzaproiektu jakinetara 22 urtetik 30 urtera arteko 100 gazte gehienez joateko erraztasunak ematea da diru-laguntza programa honen helburua.

Bidaia-gastuetarako eta, hala badagokio, hautatutako pertsonak destinoko herrialdean sartzeko bisaren gastuetarako programa honek 2018ko ekitaldirako guztira duen gehieneko zenbatekoa 155.000 eurokoa da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

717 gaztek egin zuten eskaera, eta ondoren, horietatik 99 hartu zuten parte. 57 Garapenerako gobernu kanpoko erakunde ere hartu zuten parte, 18 Euskadikoak eta 39 xede-herrialdeetakoak, eta 41 lankidetzaproiektu garatu ziren, Amerikako, Afrikako eta Asiako 13 herrialdetan.

Deialdia 3222-Gazteria aurrekontu programa ekonomikoan dago:

1993. urtean sortu zen programa eta, orduetik hona 2.200 gaztek hartu dute parte, gutxi gorabehera, eta oso balorazio positiboa izan du beti, arrakasta handia du gazteen artean.

Euskadiko gazteei Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzaprogrametan parte hartzeko aukera eman nahi diegu, euren esperientziak gure gizartean elkartasun kultura sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko balio izan dezan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Kontratua (bidaia-agentzien zerbitzuak) | 1 | 1 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak |
|---|

2.- Araua

| |
|--|
| Agindua, 2018ko ekainaren 13koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Haren bitartez, tokiko eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-ekipamenduen sarea 2018an bultzatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautu eta deitzen da. |
|--|

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

| |
|---|
| Araua eta deialdia: http://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803177e.pdf |
|---|

| |
|---|
| Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900500e.pdf |
|---|

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Programaren helburua da gazte-ekipamenduak eraikitze, handitze edo hobetzeko diru-laguntzak ematea. |
|---|

| |
|---|
| Diruz lagundu daitekeen esparrua: Ekitaldian, espezifikoki 12-30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduak hartzeko etxebizitzak eraikitze, berritze, egokitzeko edo handitze proiektuak egiteko gaituta dauden profesionalen proiektuen gastuak, bai eta halako obrak egiteko gastuak edo kostua ere. |
|---|

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

| |
|--|
| 24 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 18k diru-laguntza lortu dute, batek uko egin dio eskaerari eta beste 5 ukatu egin dira (2 deialdian ezarritako betekizunekin bat ez datozelako eta 3 deialdiaren xedea ez betetzeagatik). |
|--|

| |
|--|
| Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 289.996 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (290.000 €) %99,99, alegia. |
|--|

| |
|--|
| Emandako diru-laguntzen bidez, Euskadiko gazte-ekipamenduen sarea osatzen duten toki esparruko gazte-ekipamenduen sorrera eta hobetzea sustatzen jarraitzen da. Diruz lagundutako proiektu horiek erabilgarria keta beharrezkoak dira toki esparruan gazteria arloko zerbitzu-politika sustatzeko. |
|--|

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|-------------------------|----------------------|----------------|
| Emandako diru-laguntzak | 20 | 18 |